

**GIZARTE-SEGURANTZAKO SISTEMARI ETA
ESTATUKO ENPLEGU-ZERBITZU PUBLIKOARI
(SEPE) BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA**

Bizkaia Talent. Azken eguneratzea: 2021eko ekaina.



AURKIBIDEA

1. GIZARTE SEGURANTZAKO SISTEMA	3
I. Sarrera	3
II. Afiliazioa eta alta	4
III. Aseguratu baten onuradunak	4
IV. Kotizazioak	5
V. Erretiroa	6
VI. Telelana	6
VII. Europako Osasun Txartela	7
2. ESTATUKO ENPLEGU-ZERBITZU PUBLIKOA (SEPE)	8
I. Langabezia-prestazioa	8
3. HARREMANETARAKO	

1. GIZARTE-SEGURANTZAKO SISTEMA

I. Sarrera

Gizarte-segurantzako Sistema zenbait araubidek osatzen dute, eta Estatuak, haren bidez, babes egokia bermatzen die haren aplikazio-eremuaren barruan diren pertsonen, jarduera profesional bat egiteagatik edo ordaindutakoaren araberakoa ez den modalitatean ezarritako baldintzak betetzeagatik, bai eta beren ardurapean dituzten senideei edo parekatuei ere, legean jasotako kontingentzietan eta egoeretan.

Ordaindutakoaren araberako modalitateko prestazioen ondorioetarako, Gizarte-segurantzako Sistemaren aplikazio-eremuaren barruan daude, beren sexua, egoera zibila edo lanbidea edozein izanda ere, Espainian bizi diren espainiar guztiak eta Espainian legez bizi diren edo dauden atzerritar guztiak, betiere, kasu bietan, beren jarduera Estatuko lurraldean egiten badute eta hauetakoren bat badira:

- Besteren konturako langileak.
- Norberaren konturako langileak edo autonomoak.
- Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak.
- Ikasleak.
- Funtzionario publiko, zibil edo militarrik.

Gizarte-segurantza administrazio publikoa da, Gizarteratze, Gizarte-segurantza eta Migrazio Ministerioaren mendekoa.

ERAKUNDEAK	PRESTAZIOAK	IZAPIDEAK
Gizarte-segurantzaren Institutua	<p><i>Ezintasun iraunkorra.</i></p> <p><i>Pentsioak (Erretiroak).</i></p> <p><i>Aldi baterako ezintasuna/Arriskuko haurdunaldia.</i></p> <p><i>Amatasuna/Aitatasuna: Arriskuko edoskitzea, Eskola-asegurua.</i></p>	<p><u>Egoitza elektronikoa</u></p>
Gizarte-segurantzaren Diruzaintza Nagusia	<p><i>Enpresak Gizarte-segurantzako araubidean inskribatu eta kotizazio-kode bat esleitu.</i></p> <p><i>Kontratu propioa duten langileen Afiliazioak, Altak, Bajak eta Gizarte-segurantzaren kudeaketa, bai eta langileen noizbehinkako datu-aldaketak ere.</i></p> <p><i>Kotizazioak kudeaketa eta kontrola, bai eta kuotak eta Gizarte-Segurantzako Sistemako kuoten eta gainerako finantzaketa-baliabideen diru-bilketa ere.</i></p> <p><i>Gizarte-Segurantzako Sistemari pentsioak eta prestazioak ordaindu, betebeharrak publikoki betetzeko.</i></p>	<p><u>Ataria</u></p>

II. Afiliazioa eta alta

Gizarte-segurantzako Sistemako araubide batean sartzea eragingo duen lan-jarduera bat hasiko duen pertsona orok afiliazio-zenbaki bat eskatu beharko du.

Nola egiten da?

- **Enpresariak** behartuta daude Gizarte-segurantzako Sistemari afiliatu gabe dauden eta beren zerbitzura lanean hasiko direnen afiliazioa eskatzera.
- **Norberaren konturako langileak edo parekoak**, beren jarduera izaera horrekin hasten dutenean eta afiliatuta ez daudenean, afiliazioa eskatzera behartuta daude.

Nola eskuratu zenbakia?

Afiliazio-eskaera ([TA.1 eredua](#)) bidaliko da besteren konturako langileak edo parekoak lan egiten duen enpresa helbideratuta dagoen probintzia bereko edo langile autonomoaren establezimendua dagoen probintziako [Gizarte-segurantzaren Diruzaintzaren Probintzia Zuzendaritzara edo Administrazioa](#).

Afiliazio-eskaerak egin behar dira besteren konturako langilea zerbitzuak ematen hasi aurretik.

III. Aseguratu baten onuradunak

Nor izan daiteke Gizarte-segurantzak eskaintzen dituen prestazioen onuradun?

Aseguratu baten onuradunek izaera hauetakoren bat badute jaso ahal izango dituzte prestazioak:

- Aseguratuaren ezkontidea izatea edo antzeko afektibitate-harremana izanik harekin bizitzea, izatezko bikotea osatuta.
- Ezkontide ohia izatea edo judizialki bananduta egotea, aseguratuaren kontura pentsio konpentsatzailea jasotzeko eskubidea izateagatik.
- Aseguratuaren edo haren ezkontidearen ondorengo izatea, edo parekoa, nahiz eta judizialki bananduta egon, edo haren ezkontide ohiarena edo izatezko bikotekidearena, kasu bietan aseguratuaren ardurapekoa eta 26 urtetik beherakoa edo, zaharragoa izanez gero, % 65eko edo gehiagoko desgaitasun-maila aitortua izatea.
- Aseguratuaren neba-arrebak.

Onuradun izateko, baldintza hauek bete behar dituzte:

- Ez izatea aseguratua, 1192/2012 EDren 2.1.a artikularen arabera.
- Espainian benetako bizileku baimendua izatea, Espainiara aldi baterako lekualdatzen diren eta beren enpresak Espainiako lurraldetik kanpora lekualdaturiko langileen ardurapean daudenak izan ezik, altaren pareko egoeran badaude eta Espainiako Gizarte-segurantzako dagokion araubidean kotizatzen badute.

Zein agiri behar dira onuradunek osasun-laguntza jaso ahal izateko?

- Osasun-laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen duen [eskabide-eredua](#), bai aseguratua izango denarentzat bai onuradunentzat.
- NANA edo aseguratuen eta beren onuradunen nortasuna adierazten duen agiri ofiziala.
- Familia-liburua edo aseguruarekiko ahaidetasuna egiaztatzen duten Erregistro Zibileko ziurtagiriak, eskubidea onuradunentzat eskatzen denean.

Non eskatzen da?

[Gizarte-segurantzaren arreta eta informaziorako](#) edozein zentrotan, [Itsasoko Gizarte Institutuaren \(IGI\)](#) probintzia-zuzendaritzan edo, ziurtagiri digitala edukiz gero, [Egoitza Elektronikoa](#)ren bidez.

IV. Kotizazioak

Non ikus dezaket zenbat kotizatu dudan orain arte?

- Euskadin lan egin eta kotizatu badut, eta metaturikoa ikusi nahi badut, nola eskura dezaket informazioa?

[Zure lan-bizitza eskuratuta](#), Gizarte-segurantzaren bitartez.

- Estatutik kanpo lan egin eta kotizatu badut, eta metaturikoa ikusi nahi badut, nola eskura dezaket informazioa?

Lan-bizitza dagokion herrialdean eskatu beharko da. Bi zenbatespen egiten dira beti: batetik, Estatu bakoitzak pentsioa jasotzeko eskubidea izateko baldintzak betetzen diren erabakitzen du, Estatu horretan egiaztatutako aseguru-aldiak besterik ez kontuan hartuz gero; bestetik, beste herrialdeko ziurtagiria jaso ondoren, Hitzarmenaren parte diren Estatuetan kotizatutako aldien batuketa kontuan hartuta zenbat kobratuko litzatekeen kalkulatzeko da. [Informazio gehiago](#).

Inporta dezaket Euskadira beste herrialde batzuetan kotizaturikoa?

Kotizatu duzun herrialdearen eta aldiaren arabera.

EB/EEE/Suitza

**EB/EEE/Suitza ez diren herrialdeak,
baina aldebiko hitzarmena dutenak**

**Aldebiko hitzarmenik
gabeko herrialdeak**

<p><i>Bai, herrialdeak beren artean komunikatuko dira, sare baten bitartez; horrela, kotizaturikoa berreskuratu ahal izango duzu.</i></p>	<p><i>Bai, herrialdeak beren artean komunikatuko dira, sare baten bitartez; horrela, kotizaturikoa berreskuratu ahal izango duzu.</i></p>	<p><i>Erakundeekin herrialde horien eskumenak egiaztatu behar dira.</i></p>
	<p><i>Aldebiko hitzarmenak: Andorra, Argentina, Australia, Brasil, Cabo Verde, Kanada, Txile, Txina, Kolonbia, Korea, Ekuador, Estatu Batuak, Filipinak, Japonia, Maroko, Mexiko, Paraguai, Peru, Dominikar Errepublika, Errusia, Tunisia, Ukraina, Uruguai eta Venezuela.</i></p>	

V. Erretiroa

Estatutik kanpo hainbat herrialdean kotizatu dut. Kobra dezaket atzerrian kotizaturiko urteetako pentsioa?

Eskabidea bizi zaren lurraldeko GSIN-n egin behar da.

Azken kotizazioa non egin duzun edo non bizi zaren, herrialde horrek ordaintzen du erretiroa. Herrialdeak beren artean komunikatu (ikus goian aipatu hiru egoerak), eta *pro rata temporis* klausula aplikatzen da, herrialde bakoitzeko legeekin batera.

VI. Telelana

Gizarte-segurantzaren X herrialdean kotizatzen ari banaiz, jardun dezaket telelanean Y herrialdeetik?

Gizarte-segurantzaren oinarrizko printzipioa da lan egiten duzun herrialdean kotizatzen duzula.

- EZ, zure borondatez lekualdatuz gero:

Enpresak lekualdaketa jarduera profesionalak egiteko egin dela adierazi ezean. Herrialde berean lan egiten ari bazara, beste erkidego batean izan arren, Gizarte-segurantzak ez du eskatzen jakinarazpenik egitea, eta langileak prestazio guztiak jasoko ditu.

- BAI, lekualdatua izanez gero:

Enpresak erabakitzen badu langileak arrazoi profesionalengatik bere jarduera profesionalak Y herrialdeetik egin behar dituela, nahiz eta X. herrialdean kotizatu. Hala, langileak Gizarte-segurantzaren estaldura eduki ahal izateko, enpresak lekualdaketa berri eman beharko dio kotizatzen ari den herrialdeko Gizarte-segurantzari.

VII. Europako Osasun Txartela

Europako Osasun Txartelak (EOT), pertsonal eta besterenezinak, Europako Esparru Ekonomikoko lurraldean (1) edo Suitzan aldi baterako egonaldian beharrezkoak izan daitezkeen osasun-prestazioak jasotzeko eskubidea egiaztatzen du, kontuan hartuta prestazio-motak eta egonaldiaren aurreikusitako iraupena, egonaldia egiten ari den herrialdeko legeriaren arabera, egonaldiaren xedea turismoa, jarduera profesionala edo ikasketak diren alde batera utzita.

Kasu batzuetan, osasun-laguntzatik eratorritako gastuen kopuru finko edo ehuneko bat nork bere gain hartu beharko du, egonaldia egiten ari den Estatu horretako aseguratuaren baldintza beretan. Zenbateko horiek ez dira itzultzen.

Non eskatzen da?

Internet bidez, [Gizarte-segurantzaren Egoitza Elektronikoa](#)n. Bertan sartzeko, ez da beharrezkoa ziurtagiri digitala izatea.

2. ESTATUKO ENPLEGU-ZERBITZU PUBLIKOA (SEPE)

I. Langabezia-prestazioa

SEPE, Estatuko Enplegu-zerbitzu Publikoa, Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioari atxikitako erakunde autonomoa da. SEPEk eta Autonomia-erkidegoetako Enplegu-zerbitzu Publikoek (Euskadin, Lanbide) Enplegu Sistema Nazionala osatzen dute.

Euskadin lan egin eta kotizatu dut, eta langabezia geratu naiz. Badut langabezia-prestazioak jasotzeko eskubiderik? Zer egin behar dut?

Langabezia geratuz gero, kontuan izan behar duzu Lanbidek ez duela prestazioen/sorospenen gaineko eskumenik; hortaz, eskaera haietaz arduratzen den erakunde egin beharko duzu, hau da, Estatuko Enplegu-zerbitzu Publikoan. Lanbideren zenbait bulegok SEPE zerbitzua dute.

1. Eman alta Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa
 - a. Inoiz ez bazara egon Lanbiden izena emanda, bete zure datuak [Lanbiden alta emateko eskabide-erregistroan](#). Zure eskaera jaso eta baliozkotutakoan, SMS bidez [Nire Lanbideneten](#) sartzeko gakoa igorriko dizugu, zure datuak egiaztatu eta eguneratu ahal izateko.
 - b. Lanbiden izena emanda bazaude, zure eskaria "aktibo" dagoen egiazta dezakezu, [Lanbiden alta emateko eskabide-erregistroan](#) zure nortasun-datuak betetzean. Bertan, zure egoeraren berri ematen dizute eta zure eskaria "berraktibatzen" dute, baja-egoeran badago.
2. Eskatu Prestazio edo Sorospema [Estatuko Enplegu-zerbitzu Publikoan \(SEPE\)](#)
 - a. Cl@ve iraunkorra, Ziurtagiri Digitala edo NAN elektronikoa baduzu, erabili SEPEren Egoitza Elektronikoa zure gestioak egiteko: [eskabidea aurkeztu](#).
 - b. Ziurtagiri elektronikorik ez baduzu, aurretiko hitzordua eska dezakezu, edo [SEPEren webgunean aurretiko eskaria egin](#).

EBko edo EEEko herrialde batean edo Suitzan lan egin eta kotizatu dut, eta langabezia geratu naiz. Badut Euskadin langabezia-prestazioak jasotzeko eskubiderik?

Langabezia Espainian kobratzeko orduan, langileak bertan metatu dituen kotizazioak ez ezik, Europako beste herrialde batzuetan izan ditzakeenak ere aintzat hartzen dira. Euskadira itzuli aurretik, hobe da herrialde europarrean [U1 inprimakia \(E-301 ohia\)](#) eskatzea. Langabezia-prestazioa ezin da zuzenean eskatu Euskadin, herrialde europarretik itzuli ostean, hemen lanik egin gabe. Langileak langabeziagatik kotizatzen duen kontratu batekin eman behar du alta, nahiz eta kontratua egun baterako izan. Prestazioa eskatu ahal izango du kontratu hori amaitutakoan, dela iraupenagatik, dela kaleratzeagatik, etab; hots, legezko langabezia-egoeran dagoenean eskatu ahal izango du prestazioa.

Baldintzak:

- Gutxienez 360 kotizazio-egun izan behar ditu metatuta azken sei urteetan, eta beste prestazio batzuetarako kontsumituta izan gabe. Espainian, Europan eta aldebiko hitzarmena duten beste herrialde batzuetan kotizatutako egunak zenbatzen dira¹.
- Ezin da langabeziarik eskatu Espainian borondatezko baja eman ondoren, edo autonomo gisa baja eman eta gero. Lan-kontratu bat langilearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik bukatu ondoren egin behar da.

Langabezia Euskadin eskatzen bada, baina prestazioaren zati bat Europako beste Enplegu-zerbitzu baten bidez kobratu bada, Espainiako langabezia atzerrian kontsumitutako horren arabera murrizten da. Informazio hau U1 inprimakian jasotzen da.

Europatik kanpoko herrialde batean lan egin eta kotizatu dut, Aldebiko Hitzarmenik ez duen batean, eta langabezia geratu naiz. Badut Euskadin langabezia-prestazioak jasotzeko eskubiderik?

Europakoak ez diren eta Aldebiko Hitzarmenik ez duten herrialdeetatik itzultzen diren langileek itzultitako etorkinentzako sorospena eska dezakete².

1 <https://www.seg-social.es/wps/portal/wss/internet/InformacionUtil/32078/32253>

2 <https://www.sepe.es/HomeSepe/Personas/distributiva-prestaciones/quiero-cobrar-el-paro/subsidio-para-emigrantes-retornados.html>

3. HARREMANETARAKO

Dokumentu honetan bildutako informazio guztia iturri ofizialetatik jaso da. Halere, ez da inola ere ez ofiziala ez loteslea, ezta arloko erakunde eskudunek eurek eskainitakoaren ordezkoa ere. Hortaz, nolana ere, interesdunak erakundeotara jo beharko du:

1. [CASIA](#) (Baimenduari arreta emateko zerbitzua)

2. [Gizarte-segurantza](#)
 - [GSIN](#) (Gizarte-segurantzaren Institutu Nazionala)
 - [GSDN](#) (Gizarte-segurantzaren Diruzaintza Nagusia)
 - [Harremanetarako](#)
 - [Arreta telefonikoa](#)
 - [Kontsultak](#)

3. [SEPE](#) (Estatuko Enplegu-zerbitzu Publikoa)
 - Arreta telefonikoa Bizkaian: 944 500 598

4. [LANBIDE](#) (Euskal Enplegu Zerbitzua)
 - [Harremanetarako](#)